

# Gizarte gaietan betiko leloa

## KUKUA ETA TXANTXANGORRIA

Bere umeentzako kabia egiten zoraturik zebillen Txantxangorria, batetik bestera txotxa-biltzen. Udaberria atezoka zegon eta ibilli egin bear kabirik egingo bazan. Lenengo ta bat, lekua aukeratu. Gero, txotx lodikoteak eutsigarri bezela, kanpotik; belar-izpiak bigungarri, barrutik...

Zenbat joan-etorri, zenbat neke!

Noizbaiten, orratio, kabia eratuta zegoan. Ondoren, lanik miñena eta neketsuena zetorren: arrautzatxoak ipiñi. Txorien kabietan arrautzatxoak sekulan ikusi al dituzu? Gauza politagorik...! Pinportadun margo-kolore guzietakoak dituzu.

Lau arrautzatxo jarri zitun maiteki bere kabian gure Txantxanek. Lau arrautzatxo zoragarri. Bere erraietatik sortuak laurak. Epel-epelak. Lan arekin gaixo ere jarri ziztaigun gure txori panpoxa, sukarretan bero. Bero artan gorde bear bere erraietako frutua...

Bitartean, kuku maltzurra zugaitzetik zugaitzera egaka lasai. Berak ere Udaberriaren irrintziari erantzun nai lioke, baiña neke askorik gabe. Zertarako? Tontoren bat billatuko dut baso-baltzaren batean...

\*\*\*

ARRINDA'TAR ANES (1972)

### IFUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be. ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearco dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuñak asmaturoko edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2<sup>a</sup> eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren. Sariak lau izango dira:

1<sup>a</sup> 40.000 pezeta

2<sup>a</sup> 30.000 pezeta

3<sup>a</sup> 20.000 pezeta

4<sup>a</sup> 10.000 pezeta

Ipuñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK